



PRENTSA OHARRA: 2024.11.14

Euskal literaturako ahots nabarmenek Eñe jaialdian hartuko dute parte larunbat honetan

- **Katixa Agirrek komisariatu eta Etxepare Euskal Institutuak babestutako euskal literaturaren leihoak zentsura, memoria historikoa eta musikaren eta hitzaren arteko lotura izango ditu hizpide**
- **Eider Rodriguez, Harkaitz Cano, Borja Cobeaga, Olatz Salvador, Eneko Sagardoy, Isabel Cadenas Cañón, Nerea Ibarzabal eta Izaskun Gracia Quintana izango ditu protagonista**
- **Euskal literaturaren leihoa azaroaren 16an egingo da Madrilgo Círculo de Bellas Artes-en**

Eñe literatur jaialdiak hispaniar literaturako idazle ezagunak biltzen ditu udazkenero Madrilen, hiria idazle, liburu eta irakurleen topagune bihurtuz. Aurtengo edizioa azaroaren 9an hasi zen eta 26ra bitarte burutuko da, 15 herrialdetako 145 egile baino gehiagoren parte hartzearekin. 90 ekitaldi baino gehiagoko egitarau zabala osatu du Eñek, eta aurrean ere, Etxepare Euskal Institutuaren laguntzari esker, euskal literaturari begiratuko dio, euskal letren protagonista nabarmenei ahotsa emanez.

Edizio honetan Katixa Agirrek jaso du euskal literaturaren leihoaren egitaraua sortzeko enkargua. Hiru jarduerak osatuko dute 'Ventana a la literatura vasca' atala. Larunbat honetan izango da, azaroak 16, Madrilgo Círculo de Bellas Artes-en.

Harkaitz Canok eta Borja Cobeagak kultura, zentsura eta autozentsura hizpide izango duten solasaldiarekin hasiko da euskal literaturaren leihoa, 18:30ean. Idazleak



eta zinemagileak oztopo sotil horiek nola saihesten dituzten kontatuko dute, euskal gatazkatik ustelkeria politikora, gai konplexu eta delikatuak jorratzen dituzten lanez betetako ibilbidea berrikusiz.

19:15ean, **Eider Rodriguez, Isabel Cadenas Cañón eta Nerea Ibarzabalek** hartuko dute lekukoa, eta memoria historikoa familiaren historiara edo mikrohistoriara hurbilduko dute. Azken finean, familiako istorioek aurreko belaunaldietako ahaideekin ez ezik, gizarte osoarekin ere lotzen gaituzte, eta etxean isiltzen dena plaza publikoan ere ahazten dena izaten da. Eleberritik podcastera, hiru egileek familiako oroitzapenekin egin dute lan fikziozko edo ez-fikziozko obrak sortzeko, emaitza nabarmenak eman dituen ikerketa, adiskidetze eta enpatia ariketa batean.

Azkenik, 20:00etan, **Olatz Salvador abeslari eta musikagileak, Eneko Sagardoy aktoreak eta Izaskun Gracia Quintana idazleak** arte-sorkuntzarekiko konpromisoaz, euskararen erabileraz, intimitatearen zaintzaz eta pertsonalaren eta politikoaren arteko muga delikatuaz hausnartuko dute. Halaber, Olatz Salvadorrek 'Zainak eman' disko berriko kantuak aurkeztuko ditu.

Eñe jaialdiaren aurreko edizioetan Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Katixa Agirre, Karmele Jaio, Uxue Apaolaza, Mikel Urdangarin, Rafa Ruda, Angel Erro, Danele Sarriguren, Jon Maia, Miren Amuriza, Fermin Etxegoien eta Juan Ramon Madariaga bezalako izenek hartu dute parte, besteak beste.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Info +

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus